

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Durangoko Udala****Durangoko Udal euskaltegiko prezio publikoak**

Durangoko Udaleko Osoko Bilkurak ondorengo ebatzi zuen 2019ko urriaren 8ko ez ohiko batzarrean:

Lehenengoa: Durangoko Udal Euskaltegikoaren 2020-2021 Ikasturterako Prezio Publikoak onestea.

Bigarrena: Akordio honek aipatzen dituen Prezio Publikoak, indarren sartuko dira, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2020ko urtarrilaren 1ean.

Hori guztia abenduaren 16ko 9/2005 Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 50. Artikuluak ezarritakoarekin bat etorrira:

Klase presentzial ordu bakoitzeko prezioa: 1,20 euro.

Autoikasketako ordu bakoitzeko prezioa: 1,50 euro.

Bonifikazioak

1. Durangon erroldatutako herritarrek bizikidetzta-unitateko diru-sarreraren arabera hobera edo bonifikazioak izan ditzakete prezio publiko hauetan. Hauxe da errentaren arabera hoberien taula:

Bizikidetzta unitateko kideak Personas unidad convivencial	<= LGS <= SMI (%)	<= 1,5 LGS / SMI (%)	<= 2 LGS / SMI (%)	<= 2,5 LGS / SMI (%)	<= 3 LGS / SMI (%)
1-2	80	60	20	0	0
3	90	60	30	10	0
4	90	60	60	40	20
5 edo > / 5 o >	90	90	60	60	30

Hobaria lortzeko, subjektu pasiboak urtero egin beharko du eskaria, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Eskatzailearen eta haren ondorengoaren errenta aitortpena.
- Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinpeko deklarazioak ere balioko du).

2. %90eko hoberia aplikatuko zaie prezio publikoan 62 urtetik gorako nagusiei ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Urteko diru-sarrerak 30.000 euro gordin baino gutxiago badituzte.
- Higiezinaren kapitala 30.000 euro baino gutxiago badute.
- Durangon erroldatuta badaude.

Durangon, 2019ko urriaren 16an.—Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja